



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteazkena  
2010-04-21**

VIII. URTEA 1980. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

**ASIER HILARIO** GEOLOGOA

## «Oro har ikerlariak nahiko haserre daude gizakiaren portaerarekin»

**TOLOSA** Naturaldiaren baitan 'Flysch, haitzen hitza' dokumentala eskainiko du Hilariok bihar 19:30ean

**LEIDOR ARETOAN** Ikusle guztientzat zuzendua dagoen lanaren mezua ez da inondik ere «nolanahikoa» 2



Luis Mari Lasa, Olatz Peon eta Antton Lekuona kanpainaren aurkezpenean. ASIER IMAZ

## ELKARREKIN BIZITZEN IKASTEKO KANPAINA

**TOLOSA** Udalak sentsibilizazio kanpaina jarri du berriro ere abian; helburu nagusia 2006ko animalien ordenantza gogoraztea da 3

## 55 lagunek eman dute izena XXXII. Herri Krosean

**LEITZA** Zazpi mailatan banatuta lehiatuko dira korrikalariak hilaren 24ean; 16:15etik aurrera 7

## Loatzoko XVIII. Igoera-Jaitsiera izango da igandean

**AMASA** Amasako plazatik 631 metrora dagoen Loatzoko gaina igo beharko dute partaideek 5



**-50% -40% -35% -20%**

# LIKIDAZIOA

ERAKUSKETAN ALDAKUNTZAK

[www.muebles-basoko.com](http://www.muebles-basoko.com)

[mueblesbasoko@yahoo.es](mailto:mueblesbasoko@yahoo.es)



larrea auzoa s/n poligono 34, 2  
20150 **billabona** gipuzkoa  
tfn.: 943 692 965

## E Elkarrizketa

ASIER HILARIO &gt; Geologoa

# «Gizakia Lurraren historian oso txikia da, baina, gauzak aldatzeko ahalmen handia du»

**Gizartea** >> Naturaldian jardunaldien baitan, 'Flysch, haitzen hitza' dokumentala aurkeztuko du geologo tolosarrak, bihar, 19:30etik aurrera, Leidor aretoan.

## INIGO TERRADILLOS

Klimaren eta Lurreko bizitzaren historia arroketa idatzita dago, eta idatzita dauden gertaera horiek berriz etorriko dira etorkizunean. Baina, nolako da arroken bidez ezagutzen dugun historia? Eta nolako arrokek iragartzen dutena? Iragartzen duten hori eta gizakiak eginkoaren ondorioz eraikitzen ari dena bide beretik al doaz? Horrelako galderari erantzuna eman ahaliko diegu *Flysch, haitzen hitza* dokumentalarekin. Naturaldian jardunaldien baitan, bihar izango da ikusgai, Leidor aretoan, 19:30ean. Bertan izango dira lanaren zuzendariak, hau da, Alberto J. Gorritiberea zinema zuzendaria eta Asier Hilario Geologian doktorea. Miguel Delibes de Castro biologoak ere parte hartuko du bihar-ko saioan. Herriar orori dago zuzendua, eta «gogoetarako bide emango du, zabaltzen den mezua ez baita txantxetako», Asier Hilario tolosarrak dioenez.

### Zer da Flysch bat?

Itsaslabarrera gerturatzeko bagara, haitzetan geruzak ikusiko ditugu. Geruza horiek Lurraren historiaren liburuaren orrialdeekin pareka genitzake. Duela milioika urte sortu ziren geruza hauek itsaso azpian, sedimentuekin. Gero, kasu batzuetan azaleratu egin dira, eta horregatik, adibidez, Uzturreren gailurrean itsasoko fosilak ditugu. 50 milioi urtetan zehar itsaso azpian metatu ziren sedimentuak irakur ditzakegu liburu hauetan, eta adaketa klimatiko, geologiko edota biologiko guztiez informazioa ematen digute.

### Nondik nora sortu zen dokumental egiteko ideia?

2007ko udan Zumaian kongresu bat egin genuen geologoen artean. Zumaia geologian mundu mailako



Alberto Gorritiberea zumaiaarra eta Asier Hilario tolosarra filmarekin lanean. HITZA

erreferente izatea proposatu zen. Han ginela, Alberto Gorritiberea hurbildu zitzaidan, eta ikus-entzunezkoaren bat egiteko ideiaz aritu ginen. Gauzak kontatzeko moduan eta mezuan bat egiten genuenez, lanean hasi ginen, lehendabizi babesleak lortuz. Behin ideia edukita eta finantziazioa ziurtatuta, 2008 bukaeran gidoia eta kontaktuak lantzen hasi ginen. Nik, batik bat, edukia landu nuen, eta Alberto informazioarekin gidoia osatu zuten. Halaber, zein zientzialari elkarrizketatu ere adostu genuen. Guztira, 25 zientzialarirekin jarri ginen harremanetan, horietatik lauzpabost euskaldunak, eta guztiek baiezkoa eman ziguten.

### Eta gero dokumentala lantzeari ekin zenioten.

2009ko maiatzean grabatu genituen elkarrizketak. Zumaiaiko irudiak ere orduan grabatu genituen. Gero Urbasara joan ginen, ondoren Islandiara, AEBetara eta Mexikora. Izan ere, dokumentala ez da Zumaiaiko Flyscharen ingurukoa. Zumaiaiko Flyscha gaiaren inguruan aritzeko abiapuntua eta aitzakia izan da. Dokumentalaren funtsa, beraz, ez da Zumaiaiko Flyscha, baizik eta adaketa klima-

tikoa edo bionazitasunaren egoera bezalako gaiak, baina ikuspegi geologikotik zertututa. Dokumental interesgarria izan beharko luke bai Zumaian, bai Gipuzkoan, bai eta mundu osoan ere, guztiztaz interesgarri izan daitezkeen gaiak jorratzen baititu.

### Zein da dokumental zabaldu nahi duen ideia nagusia?

Zumaiaiko labarrek Lurraren historiaren zati bat erakusten digute, duela 100 milioi urtetik 50 milioi urtera gutxi gorabehera. Urte horietan guztietan gauza interesgarri

### «50 milioi urtetan gertatutakoa jakin dezakegu haitzetako geruzen bitartez»

ugarri gertatu ziren, bereziki klimari dagokionez, beroketa klimatiko handiena eman baitzen. Bizitzari dagokionez, dinosaurioak eta Lurreko bizidunen %70 baino gehiago desagertu egin zen epe horretan. Haitzak irakurriz jakin dezakegu zer gertatu den Lurraren historian. Ziur aski, une honetan gertatzen ari dena edota gertatuko dena aurretik ere gertatu da. Be-

raz, Lurraren historian gertatu dena ikastea da kontua, gaur egungo egoera ulertzeko eta jakiteko norantz joan gaitzkeen. Horretaz guztiaz ari da dokumentala.

### Zailagoa izango da nora goazen ikustea, ezta?

Errazagoa da nondik gatozen, edo zer gauza eta nola gertatu diren jakitea. Baina, Lurraren historiak ziklotik baduela zerbait esan daiteke. Esaterako, gaur egun beroketarekin edo klima aldaketarekin arduratuta gaude, eta lehenengo gauza litzateke jakitea egoera hau naturala den ala ez. Horretarako ikusi beharko dugu nondik gatozen, jakiteko non gauden eta norantz joan beharko ginatekeen era natural batean. Hori arroketa berrigiratu ikus dezakegu, Lurraren historian gertatu diren gauza guztiak edo gehienak nolabait arroketa idatzita baitaude. Geologoen lana da, hain zuzen ere, mundu guztian zehar, detektibeen moduan, pista horiek bilatzu, irakurri eta interpretatu ibiltzea.

### Arrokek era naturalean aurreikusituen dutena eta gizakia sortzen ari dena bide beretik al doaz?

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Ileapaintzailea.** Ibarako ileapaindegi batek laguntzaile behar du. [metxa2@yahoo.es](mailto:metxa2@yahoo.es). 609 79 27 87.

Era naturalean eman beharko litzatekeena betetzen ez bada gizakiak eragina izan duela pentsa dezakegu. Dokumentalera elkarrizketatu ditugun 25 zientzialariak entzun eta gero, nik esango nuke orokorrean ikerlariak nahiko haserre daudela gizakiaren portarekin. Gizakia oso gauza txikia da Lurraren historian, baina hain txikia izanik, gauzak aldatzeko eduki duen, daukan eta edukiko duen ahalmena oso handia da. Ziurrenik, gaur egun bide natural horretatik desbideratzen hasiak gara, eta hori beroketa klimatikoarekin ikus dezakegu, izan ere, gaur era naturalean beharko genukeen baino askoz CO2 gehiago dago atmosferan, eta hori guk sortu dugu. Bestalde, zientzialari asko hasiak dira esaten akaso seigarren suntsipen handia ari dela Lurra bizitzen. Bosgarrena duela 65 milioi urte gertatu zen, eta hartan esaterako, dinosaurioak desagertu ziren. Normalean desagertu beharko liratekeena baino 1.000 aldiz espezie gehiago ari dira galtzen egun. Horrelako datuetan oinarrituz aipatzen dute zientzialariek suntsipenarena.

### Zumaiaiko biotopoa zure eguneroko lantokia da.

Zumaiaiko gunea biotopo izendatu zenetik 50-100 geologo etortzen dira urtero ikerketak egitera. Biotopo honen guztiaren zuzendari zientzialari bezala aritzen naiz ni, koordinatuz egiten ditugun ikerketak. Zentzu horretan, gure ikerketa baliagarria izan da dokumen-

### «Era naturalean beharko lukeena baino askoz CO2 gehiago dago eta hori gizakiak sortu du»

talerako, eta, halaber, dokumentala ere biotoparentzat oso osagarria ona da.

### Dokumentala amaitu zenutenean gustura geratu al zineten emaitzarekin?

2009ko irailan eta urrian muntaketarekin egon ondoren, abenduan aurkeztu genuen. Gustura geratu ginen emaitza ikusita, hasierako ideiarekin bat datorrelako eta isladatzen duelako egindako lana. Garrantzitsua guk nahi genuen mezua zabaltzen duela. Ikusle guztiei zuzenduriko lana da, erritmo handia du eta gauza ugari kontatzen dira. Orain arteko emanaldietan jendeak arreta handiz jarraitu du, eta gogoetarako bide ematen duela ikusi dugu, botatzen den mezua ez baita nolalanahikoa.

**KEY-LAN**  
Sarrailgintza

Nalanda etorb. 11 behean - TOLOSA  
Mag.: 670 41 79 22  
Tel./Fax: 943 65 03 13

### GALTZAUNDI EUSKARA TALDEAK KOORDINATZAILE POSTURAKO LANGILE BAT BEHAR DU.

Kontuan izango da :

- Komunikabideetan eta kudeaketan esperientzia izatea.
- Euskalgintzaren ezagutza izatea.
- Kurrikuluma [galtzaundi@galtzaundi.com](http://galtzaundi@galtzaundi.com) helbidera bidali behar da.

Epea , maiatzak 14

# Animaliekin batera bizitzeko kanpaina berriro abian jarri dute

**Tolosa** » «Herritarrek eskatuta», Udalak sentsibilizazio ekimenak burutuko ditu, 2006ko ordenantza gogorarazteko.

## ASIER IMAZ

*Animaliak ez dira beren jokabideen erantzule, gu bai lelopean Tolosako Udalak sentsibilizazio kanpaina jarri du martxan. Olatz Peonek, Obra eta Zerbitzuetako zinegotziak, argitu duenez, «ez da ezer berria, Udalak animalien ordenantza 2006ean onartu baitzuen. Helburu nagusia hori da, ordenantza gogoraraztea».*

Antton Lekuona Ingurugiro teknikariak bere aldetik, Tolosan zehar *Elkarrekin bizitzeak...* izena duten gidak banatuko dituztela jakinarazi du, gune desberdinetan seinaleak jartzearekin batera.

Luis Mari Lasa Udaltzainburua ere ordenantzaren inguruan aritu da. Honen arabera, behin eta berriro arauak betetzen ez dituenak isuna edukiko du.

## «Herritarrek eskatuta»

Olatz Peonek ez du kanpaina berri bat abian jartzeko beharrik ikusten, arazo honi aurre egiteko oinarriak 2006ean jarri baitziren. Sentsibilizazioarekin jarraitu beharra

aldiz, ez du zalantzan jartzen Obra eta Zerbitzuetako zinegotziak: «Herritarrek Udalarri behin eta berriro eskatu diote gai honi heltzeko. Auzo desberdinekin elkartzen garenean, beti irteten da gai bat da hau. Berez, neurri hau hartzearen erabakia hartuta zegoen bere garaian, baina pauso bat gehiago eman behar dugula iruditu zaigu. Jendearen eskaera eta gaia zaindu egin behar dugu».

Peonen esanetan, herritarrek segurtasunaren eta gorozkien inguruan daude kezkatutik. Ondorioz, kanpainaren funtsa arlo horietan kokatzen da.

## Zaindu beharreko puntuak

Hutsetik lanean hasiko ez direnez, hainbat puntu ikuskatu dituzte jandak. Ondorengoak aipatu ditu Olatz Peonek: «Alde batetik herritako plazak aurkitzen dira. Eguraldi txarra egiten duenean adibidez, zakurren jabeek bertan aurkitzen dute aterpea eta zakur kaka gehiago egoten dira».

«Bestalde, berdeguneak aurkitzen dira. Hauetan zakurrak askatzea libre dela uste du jendeak, baina ez da horrela. Zakur kakak hemen ere jaso egin behar izaten dira. Haur parkeetan ere, gezurra dirudien arren, arazo beirdinarekin aurkitzen gara».

2006ko ordenantza gogoraraz-



Luis Mari Lasa, Olatz Peon eta Antton Lekuona atzo Tolosako udaletxean. ASIER IMAZ

tearekin batera, santzio prozedura barne, Udala arreta gehiago jartzen saiatuko dela azaldu du zinegotziak.

## Abisuak eta isunak

Atal honi Luis Mari Lasa Udaltzainburuak heldu dio. Bere esanetan lehenik abisuak emango dituzte. Hauetako jarraio egiten ez diena, isunei egin beharko die aurre: «Lehenik arinak jarriko ditugu. Berriz errepikatuz gero, larriak

eta azkenik oso larriak». Udaltzain batzuk kalean edo parkeetan ibiliko direla ere azaldu du Lasak, «zakurrak lotuta doazen edo zer egiten duten ikusten».

Azkenik, Antton Lekuonak sentsibilizazio kanpainaren garrantzia azpimarratu du. Ingurugiro teknikariaren esanetan zakurrak

ezin dira askatuta utzi eta kakak jaso egin behar dira, «baita berdeguneetan ere».

Horretarako hainbat tokitan *Txakurrak sartzea debekatuta* bezalako kartelak jarriko dituzte. «Ordenantza bat dago eta hori bete egin behar da», aipatu du Lekuonak.

## 2006KO TOLOSako ETXEABEREEN ORDENANTZA

Ordenantzak Tolosako udalerrian leudekeen animaliak babestu, eduki eta saltzeko arauak ezartzen ditu. Jabeak higie eta osasun baldintza onetan eduki behar du animalia. Aterperako instalazio egokiak, janaria eta edaria, albaitaritza eta ariketa fisikorako aukera eman behar dizkio.

Erabat debekatuta dago animaliei tratu txarrak ematea, edo arrazoirik gabe, sufrimendua, mina edo larritasuna eraike diezaieketen edozein jarduerapean jartzea.

Animaliaren edukizailerak beharrezko neurriak hartu behar ditu haren gorozkiak bide eta espazio publikoetan geratu ez daitezten.

## » ISUNAK

### Animalien ordenantza

- **Arina.** 30-300 euro.
- **Larria.** 300-1500 euro.
- **Osolarria.** 1.502-15.025 euro.

# Euskadiko Txapelketan TAK-eko sei batel



TAK-eko seniorrek Euskadiko Txapelketa irabazi zuten. HITZA

## ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Arraun Kluba 6 batelekin joan zen asteburuan Portugaletara, Euskadiko Txapelketa. Ohorezko lehian lau talde sartu ziren: nesken hiru batel eta mutilen jubenilena. Finalean azken hauek hirugarren postua lortu zuten.

Garaipena seniorrek lortu zuten. Erraztasunez gainera, Urrezko dominarekin batera bandera ekarri zuten eskualdera. Batela arraunlari hauek osatu zuten: Irati Larrañaga, Maialen Azaldegi, Amaia Doyague eta Maitane Garremendiak. Patroi lanetan Olatz Al-

dalur aritu zen. Seniorretan bigarren postuan Getaria gelditu zen. Hirugarren Koxtape eta laugarren Zumaia.

Hurrengo norgehiagokak Ferreroren izango direla jakinarazi dute TAKetik, bertan Espainiako Txapelketa jokatzeko baitira.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**Geltoki**  
fisioterapia zentroa

irekiko dugu  
**Eider Amondarainek**  
eta  
**Naiara Olaetxeak**  
apirilaren 22an (osteguna)

Batxiller Zaldibia 12 behea  
-Tolosako tren geltokiaren ondoan-  
Telf.: 943 249 692



**Z** **Zurea da hitza**

• info

**Gero arte Mokolo, eskerrik asko Poxpolo**

Iñaki Odriozola Mokolo pailazoari egindako omenaldian izan nintzen larunbatean. Ekitaldi berezia izan zen, zalantzarik gabe, baina batez ere Iker Galartza Poxpolo pailazoak bere kideari egindako omenaldia nabarmenduko nuke.

Zenbait gurasoren artean, haurrengan pentsatzen, gure zalantzak genituen nolako ikuskizuna egingo zuten eta Mokolo bertan ez izatea nola tratatuko zuten. Omenaldiaren ondoren zalantzarik ez izan beste gurasoekin hitz egiterakoan: Iker Galartzak txapela kentzeko moduko saioa egin zuen. Abestia eskaini zion Iñakiri eta gero, ikuskizunean zehar jasotzen joan zen hainbat elementurekin

eta pertxa baten laguntzarekin Mokolo irudikatu zuen eta beraien arteko elkarrizketa hunkigarria egin zuen. Ordurako hainbat pailazo taldek parte hartu zuten eta zenbait haurrei luzeegia egiten ari zitzaizen saioa. Baina Poxpolo abesten hasi zenean eta ondoren Mokolorekin egindako elkarrizketa imaginario horretan, sekulak giro berezia bizitu genuen, haur eta helduek. Adin guztietako jendea jabetu zen momentu berezi izatea nola tratatuko zuten. Omenaldiaren ondoren zalantzarik ez izan beste gurasoekin hitz egiterakoan: Iker Galartzak txapela kentzeko moduko saioa egin zuen. Abestia eskaini zion Iñakiri eta gero, ikuskizunean zehar jasotzen joan zen hainbat elementurekin

Horregatik, Iker Galartza eskerrik asko, lagundu zigulako Leidorren geunden guztiei Mokolori gero arte esaten.

**Guraso bat.****Gailur txapelkeria**

Real Madrid taldeak txapelketa bat irabazten duenean, erauntsi mediatikoei egunetan gogoarazten digute aspertzearaino. Euskal Herrian Edurne Pasabanekin antzeko egoera jasaten ari gara, baina esponentzialki anplifikatuta. Mendia hainbeste maite badute har dezatela artalde bat eta galdu daitezela goiko belazetako larretan. Nire aita zenak (baserriko semea) Xebe Peñari buruz honela mintzatzen zen: «honek meritu handia duela esaten ditek, baina benetako meritua langileak zeukagu hamar orduko lanegunak (zapatuak barne) burutzeagatik. Honek bere bizitza osoan ez dik kolpe zorrik jo».

**Jose Ignacio Imaz Eloa.****Kontsumo ohitura konpultsiboak salatzen ditu 'XL Town' lanak**

**Tolosa** » Hilaren 30ean iritsiko da euskarazko antzezlana «dibertigarri eta adierazgarria» Leidor antzokira.

**ERREDAKZIOA**

«Izan gaitez serioak, anaiok; ez gara ematen dugun itxura, ezta gure eskuek ezkutatzen dutena ere; izan gaitez serioak, tira, erosten duguna gara», dio *XL Town* antzezlanean aktoreetako batek lanaren une batean. Esaldi borobila da, antzezlanean muina argitzen duena, hain zuzen. Izan ere, lana Pikor Teatrok eta Setem gobernuz kanpoko erakundeak abiarazitako Arropa Garbia izeneko kanpainaren barruan kokatzen da.

**«Erosten dugunaren atzealdean zer dagoen»**

Setemek eta Pikorrek «erosten, janzen eta kontsumitzen dugun arroparen atzealdean zer dagoen erakusten» duen antzezlana egin dute. *XL Town* «kontsumoari buruzko parodia bat da, baita ehun-

gintza industriaren eta moda sektorearen inguruko errealitate dosi bat ere», argitu dute kanpainaren arduradunek.

Hilaren 30ean Tolosako Leidor antzokian 20:30etik aurrera ikusi ahal izango den lanak mendebaldeko kontsumo ohitura «konpultsibo eta kaskarinak eta moda eta kirol marka handien praktika harripariak» uzten ditu agerian. «Gaiberbera ikuspegi desberdinetatik helden duten lau istorio dira. Modu horretan, ikusleak lau errealitate desberdin ezagutuko ditu: markako kirol oinetakoak egiten dituen lantegi batean lanean diharduen pertsonarena; euren enpresan produkzio deslokalizatuaz zuzentzen duten exekutiboak zein modutako formazioa jasotzen dutenena; kontsumitzaileek jasaten dituzten eraso dibertigarrienak; eta azkenik, publizitate kanpaina baten zentzugabekeria».

Antzezlanean zuzendariak Elena Bezanilla eta Javier Parra dira eta gidioia Jokin Oregirena izan da. Tolosan lana euskaraz antzeztuko dute Aintzane Crujeiras, Miren Gaztañaga, Jon Koldo Vazquez eta Pako Revueltas aktoreek.

*XL Town*ek beraz, kritika zorrotza egiten dio herrialde garatuetaiko kontsumo gizarteari, baina era berean lantegietan gertatzen diren gehiegikeriak islatzen ditu, izan ere, «arropa marka hauek inpunitate osoz jardutea ahalbidetzen du gizarte honek, pertsonak erosten aurrean duten aukeraketa irizpideak eta gaitasuna galtzen dituzten bitartean. Benetako beharren aurrean nagusi baitira gehiago eduki nahi izanaren konpultsibotasuna eta zentzugabekeria». Arropa Garbia kanpaina Setemek koordinatzen du eta Europako 14 herrialdetan dago.

Gobernuz kanpoko erakundeak argitu duenez, hauek dira, present eduki beharreko ehungintza sektorearen hutsune nagusiak: deslokalizazioa eta azpikontratazioa, soldata baxuak eta ordaintzen ez diren aparteko orduak, segurtasun eta garbitasun baldintza txarrak, askatasun sindikalaren aurkako erasoak, langile ikusezinak -gizarte aseguruik gabekoak-, esklabutza baldintzak, haurrak lan egiten dutela, emakumeen bazterketa, gehiegikeria fisiko eta sexualak eta ingurumena kutsatzen dutela.



Danzantes de Gurra ere izan zen Tolosan Udaberrik gonbidatuta. HITZA

**Torrelles de Llobregat herriko haurren dantzak, larunbatean**

**Tolosa** » Udaberri dantza taldekoekin batera egingo dituzte emanaldiak Lopez Mendizabal plazan eta Plaza Berrian.

**ERREDAKZIOA**

Asteburu honetan, hilak 24 eta 25, Torrelles de Llobregateko (Herrialde Katalanak) umeak Tolosan izango dira Udaberri dantza taldeak gonbidatuta.

Udaberrik esan duenez, bi dantza taldeen elkartruke honekin «kultura desberdinak ezagutzera eramatea da» euren helburu nagusia. «Baita umeak beraien artean harremanak sustatzea ere», gaineratu dute.

**Ekainean Kataluniara**

Beraz, bisita honen ondoren, ekaineko lehenengo asteburuan, Udaberriko gaztetxoak eta hainbat begirale izango dira Kataluniara joango direnak «gure kultura bertan ezagutzera eramanez».

Etorriko diren haurrak Sbart Sant Marti dantza taldeko kideak

dira eta beraiekiko harremana 2005. urtean hasi zen, helduen taldea, urte horretako Babarun Astearen etorri baitzen.

Udaberri dantza taldea berriz, 2006ko ekainean joan zen beraien herriko Gerezien Festan dantza egitera.

«Orduz geroztik, beraiekin harremanetan jarraitzen dugu eta Kataluniara egin ditugun bidaieetan beraien laguntza izan dugu», argitu dute Tolosako dantza taldeko kideek.

**Egitaraua**

Torrelles de Llobregateko haurrak larunbatean 13:00ak inguruan iritsiko dira Tolosara, eta baikoitzak ekarritako ogitarteoak jatera Zabalarreta lorategira joango dira.

Bazkalduta eta gero 18:00etan bi taldeetako umeek emanaldi txiki bat eskainiko dute Lopez Mendizabal plazan eta hau amaitu ondoren, kalejiran joango dira Plaza Berriara, beste emanaldi txiki bat eskaintzeko.

Antolatzaileek 19:30erako dena amaitzea espero dute.

bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Asteagunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:

Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31180 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:

• N A :

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P.K.:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia:



Loatzoko XVII. Igoera-Jaitsieran parte hartu zuten korrikalariak irteeran. I. URRUTIA

## Igandean Loatzoko XVII. Igoera-Jaitsiera izango da

**Amasa** » Izen ematea egunean bertan doan izango da 09:00etatik 10:15era Uxo-Toki elkartearen irteera 10:30ean.

### ENERITZ MAIZ

Aurten ere Amasako Uxo-Toki elkarteak eta Amasako Gazteek, Loatzoko lasterketa antolatuko dute. Aurtengoa XVIII. edizioa izango da. Loatzoko XVIII. Igoera-Jaitsiera, hilaren 25ean, igandean izango da. Izen-ematea dohainik izango da eta egunean bertan egin beharko da Uxo-Toki elkartearen bertan 09:00etatik 10:15era.

Lasterketari hasiera, 10:30ean Uxo-Toki elkartearen aurrean

emango diote. Amasako plaza 90 metrotara dago eta Loatzoko gaina berriz, 631 metrotara. Hori izango da beraz parte-hartzaileek egin beharko duten bidea.

Korrikalariak Loatzora igo eta ondoren berriro irteera tokira itzuli beharko dute. Lehenengo hiru gizonetako eta lehenengo hiru emakumetako, sariak emango zaizkie.

Gainera, dortsala entregatzen dutenen artean opariak banatuko dituzte zozketa bidez: oilaskoak, untxiak, kirol materiala, ardo botilak, txuletak, arkumea, bakailoa... Bestalde, parte hartzen duten korrikalariak Amasako frontoan du txartzeko aukera izango dute.

Iaz 42 parte-hartzaile izan ziren eta horietatik, emakumezkoak lau

izan ziren. Gizonezkoetan lehena, Juan Mari Garin izan zen, 50 urteko alegiarra, hain zuzen, eta 45 minutu eta 04 segundo egin zituen. Bigarrena Luis Mari Otegi izan zen, 42 urteko amasarra, eta 47 minutu eta 57 segundoan egin zuen ibilbidea. Hirugarren, berriz, 32 urteko Luis Lasa ibartarra izan zen eta 48 minutu eta 25 segundo behar izan zituen.

Emakumeean, 38 urteko Nerea Amilibia zizurkildarra izan zen lehena 54 minutu eta 58 segundoan bukatu zuelarik; 36 urteko Idoia Ezeiza zubietarra izan zen bigarrena 59 minutu eta 33 segundorekin; eta hirugarrena, aldiz, 37 urteko Maria Rosa billabonarra izan zen, ordu bat, 09 minutu eta 50 segundoko denborarekin.

## Laburrak

### Nagore Franco podologo gaur 15:00etatik aurrera

**ANOETA** » Ohiko moduan, Alkartasuna Biltokian podologo zerbitzua izango da. Nagore Franco podologo gaur joango da Biltokira. 15:00etan hasiko da lanean eta izena eman duten guztiei, garaiz agertzeko deia egiten zaie.

### 'Bizkarra eta artikulazioak nola zaindu' hilaren 26an

**ANOETA** » Hilaren 26an, Alkartasuna Biltokian hitzaldia izango da. 18:30ean hasiko da eta jorratuko den gaia *Bizkarra eta artikulazioak nola zaindu* izango da. Beatriz Pereda izango da hizlaria eta guztiak gonbidatuta daude bertan parte hartzera.

### Langilearen egunean, sardina jatea egingo dute

**HERNALDE** » Dantza Taldeak antolatuta, maiatzaren lehen sardina jatea egingo dute. Afari honen helburua dantza taldearentzat dirua lortzea da. 20:00etan hasiko da afaria, baina horretarako txartelak erosi beharko dira. Txartelak erosteko azken eguna, hilak 26 astelehena izango da. Helduek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta 14 urtetik beherakoek doan izango dute. Txartelak Ostatu tabernan edo Udaletxean erosi daitezke.

### Kantu Jirako entsegua gaur 20:00etan Musika Eskolan

**TOLOSA** » Gaur 20:00etan Kantu Jirako entsegua izango da Musika Eskolan. Hilabete honetako kantu jira saioa larunbatean, hilak 24 izango da.

## Ostiralean Atxulondon Film Laburren Zirkuitua izango da 20:30ean

**Zizurkil** » Besteak beste, Telmo Esnal, Koldo Almandoz eta Arkaitz Basterraren lanak ikusi ahal izango dira.

### ERREDAKZIOA

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak, Film Laburren Zirkuitua urtero antolatzen du. Aurtengoa zazpigarren edizioa da. Laburbira zirkuituak, euskarazko ikus-entzunezkoen urteko produktzioa ezagutarazi, eta herrieta-ko kultur eskaintza aberasteko helburua du.

### Bederatzi film labor

2009an ekoizitakoak diren bederatzi ikus-entzunezko eskainiko dira. Urtero bezala, aurtengoa ere, ibilbide luzeko egileak eta egile berriak ere kontuan hartu dituzte. Horrela, Telmo Esnal, Koldo Almandoz edota Arkaitz Basterra zuzendari ezagunen lanak ikusteko aukera izateaz gain, oraindik hain ezagunak ez diren Estibalitz Ariz, Itziar Faido, Janire Fernandez edota Urko Mauduit zuzendarienak ere izango dira.

Besteak beste, Almandozen *Ahate Pasa*, Esnalen *Amona Putz!*, Barredo eta Garcieren *Clark eta Boris*, Basterraren *Esaioak* edota Bergara eta Sanzen, *Nora Zoaz* izango dira ikusgai.

Sarrera hiru euro ordaindu beharko da eta Larramendi Bazkunaren eskutik, Atxulondo kultur etxean izango da.

## Play Back erakustaldian izena emateko garaia iritsi da

**Anoeta** » Herriko festetan, ekainaren 4ean, Play Back erakustaldia izango da. Izen emateko azken eguna maiatzak 28a da.

### E. MAIZ

Anoetako festetako prestaketak aurrera doaz eta iaz bezala, aurten ere, Play Back erakustaldia egingo dute. Ez da lehiaketarik izango eta ondorioz, ez da irabazlerik egongo.

Ekainaren 4ean, ostiralez izango da, 18:00etan. Baldintzen artean, taldekideen erdia baino gehiago herritarrik izan behar dutela da. Antolatzaileek, eraberean, euskarazko abestiak aukeratzera eta taldeak neska-mutiluez osatuak



Festetan gaztetxoek egin zuten play back-a. I. GARCIA

izatera animatu nahi dituzte guztiak. Abestia CD batean eraman behar da.

Egun horretan bertan, 17:30ean kiosko ondoan elkartu beharko dira guztiak taldeen ordena zehaz-

tu ahal izateko. Hori bai, partaide guztiei merienda ederra emango da. Izen emateko azken eguna maiatzaren 28a izango da eta Jon Ander Odriozolaren dendan edo Kiroldagian eman daiteke.



- Sebas Martinez, Trinketeko hautatzailea.  
- Iritzia.

**UROLA KOSTA BEREZIA:**

- Zestoa Pilota Eskola.
- Elkarrizketa: Patxi Azkargorta.
- Posterra: Zestoako haurrek
- Emakumeak pilotari.
- Erremontea Azpetitiko eskolan.

**Pilotazale, eman hauspoa etorkizuneko pilotariei.**

**Egin harpidedun!**

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren euskarazko aldiizkarian

Deitu telefonoz: **943-47 14 63**

Idatzi helbide elektronikoko honetara: **kantxatik@gmail.com**

# Txintxarri Abesbatzaren urteurrena izan da bertso bazkariaren ardatza

**Alegia** » Aurten 50 urte beteko ditu herriko abesbatzak eta bertso eskolakoek bazkariaren antolatu zuten.

## ERREDAKZIOA

Umorea eta emozioa nagusi izan ziren joan den larunbatean Intxurre elkartearen egindako bertso bazkarian. Alegiako Zazpi Astoren Gainean bertso taldeak antolatu zuten bertso bazkaria eta Txintxarri abesbatzaren 50. urteurrena izan zen bertso bazkariaren ardatza.

40 bat lagun elkartu ziren larunbatean Intxurre elkartearen. Puntua puntako bi bertsolariaren laguntza izan zuten bazkaltzarrek: Sebastian Lizasorena eta Andoni Egañaren. Bazkalostean pare bat orduz gogoz jardun zuten bertsoan, elkarri hitza kendu nahirik bezala.

Felix Irazustabarrenak jarritako gaietan edo paperean murgilduta ibili ziren bi bertsolariak. Tarteka bazkaltzen zeuden pertsonekin ere sartu ziren, haiei lotutako bertsoak botatz edo adarra joz. Gai serioagoekin ekin zioten bigarren bertso saioari, orain gutxi Auzitegi Gorenak absoltitu dituen *Egunkariako* bost auzipetuen kasua izan zuten hizpide.

Baina bertsoaldietan behin eta berriz atera zen gaia Txintxarri abesbatzaren 50. urteurrena izan zen, eta ugari izan ziren Joxe Gastesi alegiarrak 1960an sortutako koruari eta abeslarietako bertsoak. Gastesi bera ere gogoan izan zuten Egañak eta Lizasok.

Bi bertsoaldien arteko geldidunean Zazpi Astoren Gainean bertso taldeak Txintxarri abesbatzari eskainitako bertsoak kantatu zituzten. Alegiako bertsolariak egun horretarako idatzitako lau bertso izan ziren, eta bazkarian zeuden



Intxurre elkartearen antolatu zuten bertso bazkaria Zazpi Astoren Gainean bertso elkarteok. HITZA



Irazustabarrena, Egaña eta Lizaso, bertso eskolako bertsoak abesten. HITZA

abesbatzako abeslariak hunkitu zituzten.

## Txintxarrikoak eskerronez

Agate deunaren bezperan bi taldeak elkarrekin aritu ziren aurreneko aldiz: korua kantuan eta bertsolariak koplak kantatzen. Kantua

eta koplak uztartu zituzten kale kale egindako saioetan. Bi taldeek esperientzia baikortzat jo zuten. «Joan den larunbateko esperientzia ere aberasgarria izan da», azaldu dute abesbatzatik. «Eskerrak eman nahi dizkio Zazpi Astoren Gainean bertso taldeari, bertso

## Tarteka bertsolariak bazkaltzen ari zirenekin sartu ziren, haiei lotutako bertsoak botatz

## Txintxarri Abesbatza: «Oso baliotsuak dira guretzako bertso eskolako bertsoak»

bazkaria antolatzerakoan abesbatza kontuan izateagatik, eta bereziki, joan den larunbaterako koruari eskainitako bertsoengatik». Abesbatzak gaineratu duenez, «bertso horiek ederki kontatzen dute abesbatzaren mende erdiko lana eta balioa. Esker oneko bertsoak dira eta oso baliotsuak guretzako hain garrantzitsua den urte honetarako».

Aurrerantzean ere elkarrekin parte hartzeko gogoia azaldu dute hitza eta doinua oinarri dituzten herriko bi kultur taldeek.

## BERTSO ESKOLAKOEK TXINTXARRIKOIEI ESKAINITAKOAK

Zazpi Astoren gainean bertsozale taldeak Txintxarri Abesbatzari bere 50. urteurrenari jarri dizkion lau bertsoak eta bertso bazkarian abestu zituztenak:

Mila bederatzirehun ta/ hirurogeigarrenean/ herriko lagun kua-drilla/ kantuan hasi zenean/ etzuen asko usteko/ denboraren emanean/ berrogeita hamar urte/ pasa eta egunean/ ilusioa erroan/ eta kantua airean/ oraindik ariko zala/ jende mordoa lanean./ Beraz kantatu nahi degu/ oraingo geldidunean./ Korue, eskerrik asko/ txintxarri izenean!

Belaunaldi ezberdinak/ etortzen eta joaten/ herrigintzaren mahaiean/ taldeko giroa jaten/ ta euskal kantagintzaren/ melodiatik edaten/ guztiak loturik daude/ kate luze, eder baten./ Bertsozaleok ere hor/ topatu gera hainbaten/ ta nahiz ta ez dizuegun/ behar aiñetan esaten./ Segi herritarrei zuten/ hondar alea ematen/ mendea betetakoan/ kantari jarrai dezaten.

Kontzertuen aurretiko/ nerbioak ta ez tula/ gaztea ronko dago la.../ zaharra falta zaigula.../ Kontzertuen ondorengo/ hamaiketako mardula./ Ene, bidaietan zenbat/ ixtori ta pelikula.../ Guzti honen balioa/ nahiz ta ezin den kalkulatu/ guk badakigu herrian/ altxor txiki bat degula./ Gogoratu esaera/ zaharrak esaten dula/ kantatzen duen herria/ ez dela hilkok sekula.

Nahiz eta bi mundu diren/ abeslari, bertsolari./ hitza denean lehengai/ eta doinua gidari./ entzuleengana iristea/ denean guretzat sari./ elkartu egiten gera/ ahotsarekin jostari./ Mende erdiko pausoa/ egin zaio bideari/ bihotzez mila zorion/ Txintxarri abesbatzari./ eta nahiz jakin bidean/ badela traba ugari/ jarraitu herri hau sortzen/ kantutik eta kantari.

## Ibilaldia Uliko mendikatean barrena

**ALTZO** » Pasatu berri den igandean, Altzoko Santillazapi Guraso Elkarteak antolatuta, Uliko mendikatean barrena «ibilaldi zoragarria» egin zuten hainbat herritarrek. Helduek zein haurrek parte hartu zuten ibilaldian. Orexako herritik irten ziren eta Uliko atsedenekura iritsi ziren lehendabizi. Horren ondoren Ulizarko mendi tontorrera igo ziren mendizaleak. «Eguraldi eder batekin goiz paregabea igarogenuen», azaldu dute ibilaldian parte hartu zutenek. HITZA

## Txekor jatea egingo dute Baliarrainen maiatzaren 1ean

### ERREDAKZIOA

Aurten ere txekor jatea antolatu dute Baliarrainen. Maiatzaren 1ean elkartuko dira Atari Soropilotalekuan, 14:00etan. Prezioa 25 eurokoa da eta txartelak hilaren 25a arte izango dira salgai Zartagi jate-txe-aterpetxean. Txartelak ez dira gordeko eta joaten ez denari, ez zaio dirurik itzuliko. Bestalde, Aramako lorezalea herrian izango da goizean zehar 10:00etatik aurrera.





# Larunbat arratsaldean jokatu da 32. aldiz Leitzako Herri Krosa

**Leitza** » Aurrera Kirol Elkaratek antolatuta, zazpi mailatan banatuta lehiatuko dira herriko kaleetatik barrena.

## ERREDAKZIOA

Larunbat honetan Aurrera Kirol Elkaratek antolatuta, XXXII. Herri krosa jokatu da Leitzako kaleetatik barrena. 16:15etan hasiko da proba eta adinaren arabera, zazpi mailatan banatuko dira parte-hartzaileak.

Lasterketak bi ibilbide desberdin izango ditu, baina bietan ere helmuga herriko plaza izango da. Benjaminek, herriko kale nagusitik atera eta herrian zehar 800 metro zeharkatu beharko dituzte, plazara iritsi aurretik. Gainontze-koek berriz, herriko kale nagusitik atera eta herrian zehar 2.500 metroko ibilbidean egin beharko dute. Mailaren arabera, itzuli gehiago edo gutxiago emanaz.

Orduetegiari dagokionez, larunbatean, benjaminak 16:15ean irten-go dira; 16:30ean alebinak eta infantilak; kadete eta juniorrak



Joan den urtean 125 lagunek hartu zuten parte Krosean; dagoeneko izena emateko epea zabalik da. N. URBIZU

17:00etan eta seniorrak eta beteranoak 17:30ean.

Izena-ematea egunean bertan, Aurrera K.E. an 15:30etatik 17:00etara bitartean egin ahal izan go da. Baita, aurretik izen-emate orria bete eta 10 euro ordainduta ere (Aurrera K.E. ko kideak 6 euro). Benjaminek, alebinek, infantilek eta kadeteek ez dute or-

daindu beharrik. Azkenik, internet bidez, [www.herrikrossa.com](http://www.herrikrossa.com) webgunean ere eman ahal izango da izena. Jada 55 lagunek eman duten izena. Dena den, lasterketa hasi baino 30 minutu lehenago itxiko da izena emateko epea.

Azken urteetan partaide kopuruak behera egin baldin badu ere, korrikalari ugari irtenen dira Herri

Krosean. XXIX. edizioan 291 lagunek hartu zuten parte, duela bi urte, 280k, eta ia 125ek. Ohiturari jarraituz, egunari amaiera emateko lasterkariak afaria egingo dute.

Parte-hartzaile guztiek eraman-go dute zerbaite txer. Izan ere, lau maila txikienetako korrikalariak dominak emango dizkiete, eta gainontzekoei, kamisetak. Bestalde,

## » ZENBAIT DATU

**Korritu beharreko distantzia, adinaren arabera**

■ **Benjaminak (2001-2000).**

800 metro, neskek nahiz mutilek.

■ **Alebinak (1999-2000).**

2.500 metro, neskek nahiz mutilek.

■ **Infantilak (1997-1998).**

2.500 metro, neskek nahiz mutilek.

■ **Kadeteak (1994-1996).**

Mutilek 5.000 metro eta neskek 2.500.

■ **Juniorrak (1991-1993).** Mutilek 7.500 metro eta neskek 5.000.

■ **Seniorrak eta damak (1990-1975).** Mutilek 10.000 metro eta neskek 5.000.

■ **Beteranoak (35 urtetik gorakoak).** Mutilek 10.000 metro eta neskek 5.000.

kategoria bakoitzeko lehen eta bigarren sailkatuei nahiz lehen leitzarrei garaikurrak oparituiko zaizkie.

Diru sariak, sailkapen orokorreko lehen lau korrikalariarentzat izango dira, mailak kontuan hartu gabe. Gizonezkoetan, irabazlearentzat 200 euro, eta emakumeetan, 100. Bestalde, Andres Perezen marka hausten duenak, 29 minutu eta 49 segundotakoa, 160 euro irabaziko ditu. Leitzako taldeen artean ere axuriak banatuko dituzte, onenen artean.

# «Hezkuntzaren aldeko gola» sartu dute Erletan

**Leitza** » Hezkuntzaren aldeko astearen aurten go leloarekin bat eginaz, hainbat jarduera egin dituzte ikastetxean.

## ERREDAKZIOA

Nazioartean, hezkuntzaren aldeko astea ospatzen ari dira egun hauetan, eta gauza bera egitea erabaki dute Leitzako Erleta ikastetxean. Honen harira, gai hau jorrazteko asmoz jarduera ezberdinak egin dituzte maila edo ziklo bakoitzean, baina, atzo, denek elkarrekin, «hezkuntzaren aldeko gola» sartu zuten.



Bost eta seigarren mailako ikasleek futbol partida bat jokatu zuten atzo arratsaldean. HITZA

Atzo bazkalostean, 5. eta 6. mailako ikasleak eta Aurrerako jokalaririk, txandala eta zapatilak jantzi eta futbol zelaira atera ziren partida bat jolastera. Hauek animatzen aritu ziren eskolako ikasle, irakasle, guraso eta langileak.

Hezkuntzak jasotzen duen finantzazioari buruzko hausnarketa egitea eta guztiontzako hezkuntza lortzeko ahaleginak batzea dira aurten go kanpainaren helburuak. Hala, Hegoafrikan jokatu den 2010eko Munduko Kopak aprobetxatu nahi dute, «honek aukera ezin hobea eskaintzen baitu milioika pertsonengana iritsi eta hezkuntzak politikariren agendan lehenetsuna izan dadin exijitzeko».

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



21°  
13°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	17°
HOTZENA	11°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 118. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Alegia.** Loatzo musika eskola zenbait aldaketa egitera doa. Hori dela-eta herritarrei zuzendutako batzarrak deitu ditu hainbat herritan. Gaur Alegian 19:30ean udal txean egingo dute bilera. Bihar Villabona 19:30ean Musika Eskolan elkartzeko dira.
- **Tolosa.** Tolosa Kantarik antolatuta, kantu jirako entsegua Musika Eskolan 20:00etan. Ateak zabalik daude parte hartu nahi duten guztiarentzat.
- **Villabona.** Aiztondora Egunean egingo den herri bazkarirako txartelak Iratzar, Xiker, Irualdeta, Xaldu, Egarri, Zentroa eta Iturri Ondo tabernetan salgai 20 eurotan (haurrek 10 euro). Bihar da azken eguna txartelak erosteko.

### Hitzaldiak

- **Ibarra.** Elena Iraolagoitiak *Komunikazioa eta adiskidetasuna, bizitza osasuntsurako giltzarriak* hitzaldia emango du Bizi Nahi jubilatuek elkartean 17:30ean.
- **Tolosa.** Pedro Rosabalen *Biodibertsitatearen kontserbazioaren erronkak* hitzaldia Kultur Etxean 20:00etan, Naturaldia jardunaldietan.

### Kirol Astea

- **Irura.** Kirol Astearen baitan, 17:30etik 19:00etara patinaje ikastaroa haurrentzat pilotalekuan; 19:00etatik 20:30era patinaje ikastaroa helduentzat pilotalekuan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Javier Olarreaga. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
- **Leitza.** M. Plaza. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Monika eta bere familia hemen inguruan ibili ziren Aste Santuan eta Garesen (Nafarroa) ateratako argazkia bidali dute HITZA Argazki Lehiaketan parte hartzeko. Zu ere animatu!

# Nafarroan barrena



### TOLOSA

Tolosako Monika Alfarok Garesen ateratako argazki hau bidali du: «Familiakoak hemendik ibili gara eta Garesen irudi hau ateragenuen. Orain dela hamar mende tresna gutxiagorekin neurri perfektuak ere lortzen bazekiten. Simetrikotasunak ondo erakusten digu hori». MONIKA ALFARO

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Eñaut Gurrutxaga Etxeberria (Tolosa).** Gaur 8 urte. Oraindik gaztegia holako trasteak manejatzeko! Muxu handi bat familia osoa eta bereziki Leireren partez.

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

agurrak

Mesedez,  
ekarri  
argazkia  
bi egun  
lehenago.

agurrak

argazki lehiaketa

**bidali opor hauetako argazkiak!**

NORA BIDALI?

tolosaldean@tolosaldeko hitza.info helbide elektronikora edo HITZAren Tolosako edo Leitzaoko egoitzetara **Apirilaren 6tik 28ra**

1. Saria

landex...

2. Saria

3. Saria

sonentza...

ukera

o

a

kutik,

**HITZA** aste santuko argazki lehiaketa